

Iñigo Urkulluren (EAJ) inbestidura diskurtsoa

2012-12-12

Eusko Legebiltzarraren hamargarren legealdi honi, aurreko bederatzietan bidea ireki eta jorratu dutenen oroimen eta aitormen batekin eman nahi diot hasiera.

Bederatzi legealdi hauetan, gu guztiontzat Herri hobea egiteko ideala partekatu duten emakume eta gizonak.

Beren Herriarekin konprometitu diren ordezkari publikoak, beren onena eman dute, Euskadiren aurrerapen ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatzeko.

Legebiltzarkide jaun andreak dira, puntu honetara ekarri gaituzten proposamen eta egitasmoak landu, eztabaidatu eta adostu dituztenak.

Herriaren zerbitzura egoteko bokazioa duten pertsonak, besteen alde lan egin dutenak, hiritarrak politikatik hain urrun sentitzen diren une hauetan.

Kasurik gehienetan, legealdia amaitzean, Herriaren zerbitzura lan egin izanak ematen duen poztasuna sentitu dute.

Eta, aldi berean, seguru aski, ez dute beren eskuzabaltasunaren neurriko esker onik jaso.

Gaurko honetan, zerbitzu publikoaren garrantzia aldarrikatu nahi dut, bokazio politikoa elikatzen duen interes komunitario eta kolektiboaren garrantzia.

Ekimen politiko bat, bere egitekoa akordioak bilatzean oinarritzen duena; gutako bakoitzak apur batean amore emanez, denok izan dezagun aurrera egiteko aukera.

Denborak ematen digun ikuspegiarekin, une ona da, gu baino lehen izan diren legebiltzarkideei, oraingoa Euskadi hobea delako errealitate ukaezina adieraztea. Demokraziaren hasieran, euskal erakundeak martxan jartzeko une hartan ezagutu genuena baino askoz hobea.

Euskadi hau ere bada, bere gaitasun eta eskuzabaltasunaren fruitu, bere lan eta esfortzuen ondorio.

Gaur, hamargarren legealdi honen hasieran, aukera ona da, aurreko bederatzietan egon direnei "eskerrik asko" esateko.

Pertsona hauetako asko eta asko, ez daude orain gure artean, eta oroimen berezia eskaini nahi diegu.

Pertsona hauetako batzuek beren haragi eta odolatan sufritu zuten terrorismoaren bortxa eta indarkeria. Heriotza, mina, etsipena eta xantai bidegabe eta onartezina.

Biktima guztiak, hildakoak, sufritu zutenak, beren sinesmen eta ideiangatik jazarriak izan zirenak.

Biktima horiek guztiek merezi dute gaur gure oroimen eta aitortza.

Legebiltzar honen konpromisoa merezi dute, gertatutakoa sekula ahaztua izan ez dadin. Baina, batez ere, inoiz gehiago gerta ez dadin.

Nos encontramos en el inicio de un nuevo tiempo.

Un nuevo tiempo en que los ideales se presentan como ideas aquí, en este Parlamento elegido en democracia y libertad por la ciudadanía vasca de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Nace un tiempo en el que nadie es perseguido o coaccionado por sus ideas.

El tiempo en que se hace realidad que todas las ideas son libres.

Nace la legislatura de las ideas en democracia y libertad plena.

Desde la democracia, a través del diálogo, la negociación y el acuerdo, todas las ideas se pueden defender en libertad.

En esta Cámara, está reflejada la pluralidad de nuestro País. Estamos todos, y entre todos podemos llegar a compartir nuestros ideales para, como resultado del debate y el acuerdo, hacerlos realidad.

Democracia, Pluralidad, Libertad. No hay excusas que valgan para rehuir el debate. No hay otro foro con más legitimidad democrática. No tiene sentido ya apelar a mesas de partidos ni puntos de encuentro extraños.

Este Parlamento es la mesa, el foro en el que las formaciones políticas vascas deberemos debatir y construir el presente y el futuro de la Comunidad Autónoma Euskadi.

Este es el punto de inicio de esta décima legislatura, un auténtico reinicio para Euskadi.

Honakoa da Eusko Legebiltzar honen aurrean aurkezten naizen unea. Lehendakari gai gisa aurkezten naiz, jaun andre agurgarrion aurrean, hurrengo lau urteotarako Gobernu egitasmoaren lerro nagusiak aurkezteko.

Bidea hasteko ardura neureganatzen dut. Pairatzen ari garen egoera larriak eskatzen digun premiarekin eta, aldi berean, irekitzera goazen bide honetan gu guztiok elkartu behar dugula argi jakinik.

Jabetuta nago planteatzen ditudan helburuen garrantziak berak derrigortzen gaituela, "akordioa" hitza irekitzen dugun legealdiaren aurrealdean idaztera.

Honek, jaun andreok, akordioaren legealdia izan behar du.

Ezberdinen arteko akordioaren legealdia. Halakoak garelako. Ezberdinak gara, baina helburu gisa partekatzen dugu Euskadiren abantzamendua, transformazioa eta aurrerapena.

Honek izan behar du akordioaren legegintzaldia. Euskal lur hau partekatzen dugunon artean, guk guztion artean Euskadirentzako etxe berria eraiki dezagun.

Esta debe ser la legislatura de los acuerdos transformadores.

Y mi afán, como candidato a Lehendakari de este País, es que así sea.

Que el acuerdo fructifique.

Que el acuerdo entre diferentes prospere.

Que el acuerdo de convivencia se instale entre nosotros como mejor garantía de prosperidad para las nuevas generaciones.

Esta será una de mis prioridades desde el primero al último día de esta legislatura.

Es mi palabra.

HIRU KONPROMISO.

Presento hoy ante esta Cámara tres compromisos programáticos para la presente legislatura.

1.- Un Plan por la reactivación económica y un Plan de choque por el empleo.

Nuestro objetivo es generar crecimiento, crear riqueza y empleo, ubicando a la persona en el centro de nuestro compromiso, a través de una política social que garantice unos servicios públicos de calidad.

2.- Un Acuerdo por la Paz y la Convivencia.

Desde la Memoria y la Justicia. Una apuesta por un futuro en Concordia.

3.- Un Acuerdo por un Nuevo Estatus Político.

Una vía para fortalecer el autogobierno vasco, sinónimo de más bienestar.

Nuestro País afronta tres retos decisivos en su devenir histórico.

Retos urgentes, importantes y trascendentes en el marco de esta legislatura.

Una vez presentados estos retos, plantearé los principios, valores y compromisos que inspiran el Gobierno que propugno.

Será un nuevo Gobierno y también una nueva forma de gobernar para reforzar el compromiso público, el sentido moral de la política y del servicio a la sociedad.

El Gobierno que planteo va a ser más ajustado, va a tener una estructura más reducida y propongo simplificar también la red de sociedades y organismos públicos.

Queremos dar ejemplo para un proceso general de ajuste y reorganización del conjunto de la Administración pública vasca que deseamos abordar esta legislatura, incluyendo la revisión de nuestra arquitectura institucional que sustentan el Estatuto de Gernika, la Ley de Territorios Históricos y la Ley Municipal pendiente.

El modelo institucional vasco se ha mostrado eficaz durante las últimas tres décadas. Considero que la mejor forma de reforzarlo es proceder a su actualización, adecuación y reforma.

Hona hemen beraz, Euskal Autonomia Erakundea-Euskadik orain hastera goazen ziklo politiko berrirako izango dituen erroak eta konpromisoak.

Konbentzita nago bizi dugun errealitate politiko, sozial eta ekonomikoaren diagnosi zuzen eta egokia dugula.

Gure inguruko errealitateak zailtasun ekonomikoak erakusten dizkigu.

Europar herrialde askotan Ongizate Estatuaren zutabeak kolpatzen ari den krisi larria.

Herri hauetan ezinbesteko ikusi dute erreskate ekonomikoa eskatzea.

Atzeraldian daude murgildurik, gorantz doan langabeziarekin eta hazkunderako neurriak martxan jartzeko inolako gaitasunik gabe.

Herrialde hauetan ere, aurreikuspen ekonomiko ezkorrak dituzte datorren urteari begira. Hauxe dugu begien aurrean aurkezten zaigun errealitatea.

Egoera latza da. Baina itxaropenez jantzitako mezua adierazi nahiko nuke.

Egoera honetan aukera berriak ere baditugulako.

Ziur nago garrantzizkoari erantzuna emango dion egitasmoa planteatzen ari naizela, hiritarren eskari eta beharrezan erantzuna emateko.

Konbentzituta nago, elkarrekin lortu egingo dugula Euskadik hurrengo urteotan aurre egin beharko dien erronkak gainditzea.

BERRABIATZE EKONOMIKORAKO ETA ENPLEGURAKO TALKA EGITASMOA.

Aurkezpenari hasiera emateko, orain aldiari eskainiko diot begirada errealista eta zintzoa.

Krisialdi ekonomiko luze, larri eta sakona bizi dugu.

Krisialdi ekonomiko hau, krisi finantzarioak eragin du, eta ondorioz ekarri du krisialdi instituzionala, eta politikoa.

Krisi honek egunero planteatzen dizkigu egoera berriak. Pertsona eta familiak kaltetzen dituelako. Azken bi hamarkada hauetan Euskadin ezagutu izan ez dugun eran.

Krisi honek langabeziaren gorakada itzela eta izugarria eragin izan du azken hiru urteotan. Euskal Autonomi Erkidegoan 171.000 gora langabe ditugu. Pertsona hauek, Lanbidera joan dira, lanpostua bilatzeko ekimenean ari dira beraz.

Enpleguaren beherakadak oraingo bidea jarraituko du.

Are larriagoa dena, ez dago adierazle ekonomikorik, 2013 urtean enplegua berreskuratuko delako itxaropena emango digunik.

Une honetan bizi dugun krisiak egunetik egunera erakusten digu, gure inguru hurbiletan pobrezia eta babesgabetasun latza bizi diren egoeren errealitatea.

Duela bost urte eskas, etxe berriarekin amesten zuten familiek, gaur egun kaleratzeen amesgaiztoa sufritzen dute.

Duela gutxi emantzipatu diren gazteak, lanposturik gabe aurkitzen dira eta ez dute etorkizun hurbilean lanpostu berria eskuratzeko aukerarik antzematen.

Langile autonomoak, merkatariak, enpresa eta negozio txikietako arduradunak, kooperatibistak, nekazariak, abeltzainak... denak ari dira atzeraldi ekonomiko honen ondorioak pairatzen.

Egunero bizi dute kontsumoaren beherakada, eskaririk eza.

Eta, kasu askotan, beren jarduerari bultzada berria emateko finantzaketa eta mailegua eskuratzeko ezintasuna ere bai.

Alargun eta pentsiodunek ikusi egin dute beren eros-ahalmen eskasa are makalago egiten dela prezioek gora egin dutelako, eta hori, zehar zergen igoera ezarri delako.

Pertsona horiek guztiek, profesional eta familia horiek guztiek, guri galdetzen digute, gure begira daude.

Batasuna eta ekimena eskatzen digute.

Pertsona horiek guztiek larrialdi ekonomikoa bizi dute. Eta egoera horretan dauden

bitartean, guk egoera hori nazio larrialdi gisa biziko dugu.

Lehendakari-gai gisa dudan konpromisoa eta, beraz, gure Gobernuaren konpromisoa, beti egongo da ardurari eta ekimenari lotuta.

Gobernu guztien egitekorik garrantzitsuena da hiritar guztientzat ahal dugun ongizate mailarik handiena lortzea.

Hauxe da neure buruari jarri diodan derrigorra, bizitzea egokitu zaigun aldi honetarako neureganatu dudan konpromisoa.

Eusko Jaurlaritza berriak izango duen testuinguru ekonomikoa benetan larria da.

Hala adierazi dute oraingo Jaurlaritzaren aurreikuspen ekonomikoek. Bost datu emango ditut:

- 2013. urtean, Barne Produktu Gordinaren % 0,8ko hazkunde negatiboa emango da.
- Eusko Jaurlaritzak 700 milioi gutxiago izango ditu bere Aurrekonturako.
- Zorpetze bidezko sarrerak 500 milioitan murriztuko dira, defizitaren helburua betetzeko.
- Langabeziak hazten jarraituko du, eta datorren urtean 16.000 lanpostu galduko dira.
- Eta gainera, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu erretserbak agortu egin dira.

Esta es la difícil realidad que va a enfrentar el próximo Gobierno Vasco en 2013 en la Comunidad Autónoma Euskadi, con el agravante de que la situación de nuestro entorno es también muy negativa.

La recesión y el paro asolan el Estado. Y la situación en Europa tampoco hace previsible una pronta recuperación.

En definitiva, el año que viene vamos a vernos arrastrados por la inercia de la severa recesión con su doble efecto de contracción de la actividad económica y de pérdida de empleo.

La visión aquí plasmada no es positiva, pero esto no impide que mi ánimo sea optimista. Si no creyera que es posible influir en la coyuntura, si no estuviera persuadido de que es necesario resistir para superar los malos augurios, no habría dado un paso adelante en la formalización de mi compromiso como candidato a Lehendakari.

Creo, sinceramente, que este País tiene opciones para salir adelante. Que podemos, no sin esfuerzo, salir del atolladero.

Necesitamos acción, decisión, voluntad, ingenio y colaboración.

Con ese compromiso, señoras y señores parlamentarios, es mi intención, formalizar tras recabar la confianza de esta Cámara, un Gobierno de acción para afrontar, sin pérdida de tiempo, la grave situación económica que padecemos.

Un Gobierno que sea capaz de generar una nueva dinámica positiva de crecimiento y de ilusión colectiva.

Hona hemen bestelako interes eta helburuen gaintik jartzen dudan helburua. Jakin badakit laguntasun eta babes guztiak beharko ditugula.

Nire Gobernuaren ardurakoa izango da ateak zabalik mantentzea eta egoera larri

honek eskatzen digun batasuna ahalbidetzea.

Ezagun dut - eta hala ulertzen dut nik bere ñabardura guztiekin -indar politikoez krisiaren aurrean laguntzeko duten gogo. Nire ahaleginik handiena egingo dut adostasun ekonomiko gorena lortzerik izan dezagun.

Gu guztiok konturatu gara gobernuko eta oposizioko alderdien arteko adostasun mailarik handiena lortu duten europar herriak direla, sufritzen ari garen krisi ekonomiko hau ondoen daramatenak.

Lehenago esan bezala, gaurko honetan aurkezten ditugu gure Egitasmoaren ildo nagusiak.

Jaurlaritzak oraingo ekitaldian duen egoera ekonomiko eta finantzarioaren inguruko informazio zehatza jaso bezain laster, Sailen egoera sektoriala zehatz-mehatz ezagutu, eta 2013. urterako aurrekontuen eszenatokia jakin bezain laster, hurrengo Jaurlaritzaren Egitasmoa izango dugu.

Nuestro primer compromiso se centra por tanto en lo prioritario, en la reactivación económica, la recuperación del crecimiento y el empleo.

Tenemos que salir de la recesión y lograrlo cuanto antes.

Vamos a elaborar y presentar una propuesta que incluya estas cinco áreas de actuación:

- Una línea de apoyo a personas emprendedoras y los profesionales autónomos.
- Un programa de impulso a la innovación.
- Un programa para potenciar la internacionalización de las PYMES.
- La activación de la política industrial, y
- Un plan específico para el impulso del empleo juvenil.

Somos conscientes, lo he dicho ya, de que necesitamos cosechar la colaboración y participación de todos, por lo que nos daremos un plazo con objeto de poder contrastar y completar esta propuesta.

Si soy elegido Lehendakari, iniciaré esta labor y junto con las y los Consejeros, nos reuniremos con los representantes de todas las formaciones políticas, reiterando nuestra voluntad de sumar el máximo de fuerzas posibles a este acuerdo.

Adelanto también que solicitaremos un encuentro de trabajo a los máximos responsables de las tres Diputaciones Forales y de EUDEL. Y lo vamos a hacer también con los agentes económicos y sociales de Euskadi.

Fruto de esta iniciativa y de este contraste planteo mi primer compromiso ante este Parlamento Vasco:

Consiste en presentar, una vez aprobado el Presupuesto de 2013, el Plan por la Reactivación Económica y el Empleo del Gobierno Vasco.

Berriz ere esan nahi dut, nire asmoa dela proposamen honen kontrastea lehenestea.

Azken hilabete eta erdi honetan izan ditugun era guztietako harreman eta topaketetan, adostasun maila bat antzeman izan dut. Adostasuna egoeraren diagnosa egiterako orduan, zein premia osoz neurri ekonomiko adostuak hartzeko dugun beharra baieztatzean.

Hiru hilabete ditugu orain, elkarrekin partekatzen dugun helburu horretan aurrera egin dezagun.

Martxan jarri beharko ditugun neurrietarako egutegia zehazteko eta gauzatzeko ahalik eta adostasun mailarik handiena lortzeko erronka dugu.

Berrabiatzeko eta Enplegua sortzeko Egitasmo honek barnean hartuko ditu Euskadin ekonomia errealari eustearren, kudeatzeko gai izango garen ekimenak.

Ez gara hutsetik hasten. Autogobernuaren beraren tresnak ditugu: Kontzertu Ekonomikoa, barne finantzaketa eredia edo zergak arautzeko gaitasuna.

Oinarri sendoa dugu, lehenago esandakoez gain ehun ekonomiko propioa dugulako, egitura konpentsatu eta orekatuarekin, gaitasun egiaztatuarekin, Euskadin ekonomia produktiboan dugun esperientzia eta eskarmentu profesionalarekin.

Konbentzitura bainago, etorkizunerako izango ditugun aukeren oinarrian dagoela gure gaitasun propioak biziberritzeko izango dugun ahalmena.

Bakoitzak bere lana egiteko garaia dugu oraingoa, iraganean egin genuen moduan.

Krisi bakoitzaren aurrean, hortzak ondo estutu eta eutsi egin izan diogu, beharra izan da aurrera egiteko izan dugun bertutea.

Oraingoa ere lor dezakegu, erakundeetatik emango dugun bultzadizoarekin, gure ehun ekonomikoari lagunduz.

Ataza honi ekiteko orduan, bi uste nagusi ditut:

Lehenengoa guztiz argia da, edozein zalantzatatik kanpo dago.

Guztiz ezinbestekoa da jarduera ekonomikoa eta enplegua mantentzeko neurriak hartzea. Eta, aldi berean, gure enpresak modernizatzeko eta biziberritzeko ekimenak garatzea.

Bigarren usteak esaten digu neurri horiek premiaz eta al bait arinen gauzatu beharra daudela. Zenbat eta arinago martxan jarri, orduan eta eraginkorragoak izango dira.

Horixe baita egoera ekonomiko honek eskatzen diguna.

Lehenengo eta behin, industriari laguntzeko konpromiso irmoa planteatzen dut. Industria gure Barne Produktu Gordinaren % 25a suposatzen du, eta jarduera hori betidanik egon da gure garapen ekonomikoaren oinarrian.

Industria politikaren eredu propioa berreskuratutako dugu, bost ekimen martxan jarritz:

- Berrikuntza sustatu sektore estrategikoetan.
- Produktibitatea hobetu lehiakortasun politikak garatuz.
- Enpresei modernizazio eta sostengatze prozesuan lagundu.
- Euskal enpresen erabaki-zentroen mantentzea babestu, eta
- Gizarte, ekonomia eta industria garapenean lurralde eta eskualdeen arteko oreka sustatu.

Horrekin batera, Herri honetako Enpresa Txiki eta Ertainekiko konpromisoa lehenetsiko dut. Enpresa txiki eta ertain horiek gure euskal ehun ekonomikoaren % 90a direlako.

Biziberritze ekonomikorako bidean, ezinbestean behar ditugu enpresa txiki eta ertainak. Enpresa da enpleguak sortzen dituenak, ez Administrazioa.

Baina, Administrazioak izan behar du enpresak sortzen, ekimenaren bidean dauden eta enplegua eta aberastasuna sortzen dutenen laguntzailerik nagusia.

Kualifikazio handiko profesionalak, autonomoek eta ekintzaileek gure babes eta laguntasuna izango dute dibertsifikazio ekonomikoan, zein sektore gainerakor eta aukera esparru berriak bilatzeko orduan.

Bigarren helburu bat planteatu nahi dut.

Hau da gure finantza sistema propioa, kaudimenduna eta eraginkorra lortzeko bidean aurrera egiteko beharra.

Euskal enpresa eta ekonomia ehunarekin konprometitua. Ekintzaile, industria, merkatari eta jarduera sektore berriei konprometitua.

Guri dagokigu mailegu erakundearen konpromisoa lortzea, biziberritze ekonomikorako, neurri batean, beharrezkoa izango delako finantzaketa bideak ezartzea.

Nos corresponde, por tanto, lograr el compromiso de las entidades de crédito, porque la reactivación depende en parte de que vuelva a fluir la financiación.

Nuestro hecho diferencial, tanto en lo político como en lo económico e industrial, nos ha permitido ser más resistentes a la crisis mundial y a sus secuelas.

Las economías más dinámicas se caracterizan por su apertura a nuevos modelos de participación y financiación, como los fondos de inversión y capital riesgo, que deben orientarse a incentivar la creación de empresas o impulsar los sectores industriales de futuro. Vamos a propiciar que Euskadi se sume a esta realidad que permita captar fondos para ofrecer financiación a los proyectos de las empresas vascas.

Habida cuenta de las limitaciones de déficit y de endeudamiento, así como la escasa implicación demostrada hasta ahora por las entidades financieras, más preocupadas por recapitalizarse que por atender la demanda de financiación de las empresas, deberemos utilizar toda las capacidades a nuestro alcance para atraer fondos de inversión solventes, no especulativos, que nos ayuden a incentivar la creación de empresas, afianzar sectores industriales de futuro.

En este contexto, planteo el compromiso de crear un fondo de financiación para las PYMES, que ofrezca crédito y liquidez a las empresas vascas.

Sin crédito, sin liquidez en el sistema, las empresas mueren, y con ello crece nuestro nivel de pobreza y de desempleo.

Necesitamos, urgentemente, suministrar “gasolina” al tejido económico para que continúe activo. Por eso, si soy elegido Lehendakari, una acción prioritaria e inmediata del próximo Gobierno será articular con las autoridades financieras y demás agentes implicados un nuevo programa para posibilitar la financiación para autónomos, profesionales y pequeñas y medianas empresas.

El objetivo de este fondo será contribuir al mantenimiento básico, así como al impulso de la actividad de las PYMES y, con ellas, de nuestro tejido económico y social.

Aurrera egiteko erregaia behar dugu, Herria geldi ez dadin.

Finantzaketa behar dugu jarduera enpresariala sustatzeko, industriak, merkataritzak,

autonomoek, martxan jarrai dezaten.

Hurrengo Jaurlaritzak bere indar guztia jarriko du horrela izan dadin.

Hirugarren tokian, inbertsio publikoarekin dugun konpromisoa bideratzeko beharra planteatzen dut.

Ezinbesteko helburua da herrialdeen eta hirien garapenerako, aurrerapen ekonomikorako, lehiakortasuna eta enplegua hobetzeko.

Baina, gaur egun, honek talka egiten du baliabide publikoak izateko zailtasunen kontra.

Zentzu honetan iragarri nahi dut, Gobernu berriaren inbertsio publikoaren lehentasuna izango dela pertsonen beharrak asetzea. Pertsonak, beti lehenago.

Pertsonengan inbertitzeko momentuak dira, eta horrela gure esfortzua jarriko dugu izaera sozialeko inbertsioetan, Osasunari eta Gizarte Zerbitzuei lotutako ekipamenduetan.

Hauek ere badira Euskadi prestatzeko garaiak, krisitik irteten garenerako egoera egokian egon dadin. Zentzu honetan, gure aktiborik onenean inbertituko dugu. Hau da, giza kapitala, Hezkuntza eta ezagutza.

Nire konpromisoa, gure konpromisoa, esan ditudan bi erronka hauei ekitea ere bada. Esandako arlo biotan euskal ereduaren egiturak mantentzea eta, aldi berean, Herriaren modernizazio eta eraldaketa ekonomikoari ekitea.

Jakin badakigu onenak lehiatzen diren eszenatokian lehiatu beharra dugula. Berrikuntza eta Ezagutza izango da gure lehia.

Basándonos en estos dos pilares, la innovación y el conocimiento, queremos desarrollar esta segunda transformación económica, haciendo de Euskadi un referente en Europa en materia de investigación, tecnología y desarrollo. Es decir, un referente en la formación y preparación de las personas.

Vamos a propiciar además un desarrollo económico que resulte armónico, que asuma la preservación de nuestro escenario vital, de nuestro medio ambiente.

El nuevo Gobierno va a ratificar los compromisos ya alcanzados en el ámbito del desarrollo sostenible, el derecho a una vida digna para todas las personas, tanto hoy como mañana, en un entorno de calidad.

Laugarrenez, hona hemen euskal enpresaren etorkizunerako planteatzen dudana konpromisoa. Merkatu globalaren eszenatokian, berrikuntzaren eta lehiakorragoa eta mundura irekiagoa izango den ehun ekonomikoaren nazioartekotzearen aldeko apustua.

Ekonomia lehiakorragoa gure inguruko hiru jarduera sektoreetan, lehen sektoretik eta nekazaritza mundutik hasita.

Berezko balore bat dute herriari egiten dioten ekarpen ekonomikoagatik, gure Herriaren nortasun sozialarekin duten loturagatik eta, horrekin batera, lurralde orekarako bermea direlako.

Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, lehen sektorea bere osotasunean da Euskadirako garapen ekonomiko eta lehiakorretarako dugun egitasmoaren lehen zati bat.

Jaun andreok, berriz esan nahi dut hau. Gure konpromisoa, lehiakortasunera eta

berrikuntzara uztartuta egongo da.

Jakin badakigu Europako herrialderik lehiakorrenak direla beren enpresei zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema eskaintzeko aukera dutenak, zuzenean lan egin dezaten.

Sistema honen kudeaketa garatuko dugu, Administrazio publikoaren eta ekimen pribatuaren arteko kontzertazio formulen bidez.

Mi compromiso va a estar con la internacionalización de la economía vasca.

La salida de Euskadi al exterior contribuye decisivamente a nuestras posibilidades de progreso económico en un mercado que es más abierto cada día.

El objetivo es ganar presencia y dimensión en el mercado global.

Para ello es imprescindible que instituciones y empresas impulsemos una estrategia compartida de "diplomacia económica" para fortalecer la marca "Basque Country". Reforzando nuestra imagen exterior como País fiable, cumplidor y competitivo.

Esta apuesta estratégica y decidida por la internacionalización de nuestras empresas y de nuestro País, es la que nos va a permitir ofrecer productos y servicios innovadores con mayores posibilidades de éxito en el mercado exterior.

Nos va a permitir, también, mantener la capacidad de atraer cada vez más visitantes que nos eligen como destino. Reforzar nuestro posicionamiento en la industria turística y de ocio, un sector de actividad emergente y con implantación creciente en Euskadi.

Euskadi ha destacado por ser cuna de grandes navegantes, pioneros que surcaron los océanos y lo mares. Elkano, fue el primero en completar la vuelta al mundo.

Euskadi ha destacado por ser cuna de montañeros y montañeras que desde este pequeño País han ascendido las más altas cumbres del mundo.

Ahora Euskadi tiene que abrirse camino en el mundo económico, en el mercado global.

Ehunka euskal profesional eta enpresa ari dira jardun horretan. Ondo egiten ari dira, eta hobeto egin beharko dute.

Ez dira bakarrik egongo. Gure konpromisoa da bidean laguntzea, bultzatzea, koordinatzea, erantzunak eragiteko, hemen dugun tokia ondo finkatzeko.

Gure Herriaren geroa gure pertsonen etorkizunari lotuta dago, gure langileei gure profesional eta enpresen etorkizunari. Gure enbaxadorerik onenak dira, eta ez dira sekula bakarrik egongo.

Ondoan izango gaituzte Euskadirentzako aberastasuna eta enplegua sortzeko bide horretan.

Gobernu berriaren egitekoa izango da euskal enpresek munduan izango duten lana erraztea. Gure egitekoa izango da enpresen, Euskal Unibertsitateen eta euskal Administrazio osoaren arteko harremanaren makineria ondo "koipeztatzea".

Denok "Basque Country" aterkiaren babespean, munduarekin hobeto konektatuta egongo den Euskadi izan dezagun.

"Basque Country" izanak eta izenak lagunduko gaitu mundu zabalean Herri gisa hazten.

Puntu honetan egokia da gogoratzea giza garapen maila handiena duten herriak direla

hiru elementu nagusiok uztartzen dituztenak:

- Ondo finkatutako demokrazia parlamentarioa,
- Ekonomia produktibo bat garapen sortzailea, eta
- Gizarte kohesiorako politikak, hiritarrak babesteko eta kalitatezko gizarte zerbitzuak emateko.

Euskal Autonomi Erkidegoak horrek elementu guztiak baditu.

Autogobernua garatu dugun urteotan ezarri eta indartu ditugu. Gure Gobernuak hitza ematen du lan hori hobetzen jarraituko duela.

Zain dugun ataza nagusia da hori.

Hona hemen, beraz, nire Gobernuak izango duen premiazko lehentasuna, berrabiatze ekonomikoa suspertzeko eta enplegua sortzeko neurriak hartzea.

Une honetan berresten dut elkarrizketarako eta akordiorako dudan jarrera.

Nire helburua da partekatutako erabakiak erraztuko dituen giro lasai eta egokia eragitea.

Dicho todo esto, quiero añadir que somos muy conscientes de las dificultades económicas del día a día, por lo que es preciso adelantar una iniciativa más en el corto plazo.

UN PLAN DE CHOQUE POR EL EMPLEO.

En paralelo a la planificación del futuro y la reactivación de la actividad económica en colaboración con las Diputaciones Forales, mi Gobierno va a plantear la puesta en marcha de un Plan de choque por el Empleo.

Un Plan que hoy adelanto y que puede comenzar a ofrecer resultados en un más corto plazo, adoptando iniciativas sobre estas tres áreas básicas de actuación:

- El impulso del autoempleo.
- El fomento del empleo de la juventud, y
- Un programa específico dirigido a las personas paradas de larga duración.

Someteremos también a contraste estas iniciativas, porque también las queremos compartir y completar.

Ahora bien, adelanto con claridad que nos proponemos tomar las decisiones que nos permitan poner en marcha este Plan de choque por el Empleo a la mayor brevedad posible.

El momento es ahora, porque las necesidades que inspiran este Plan se están produciendo ahora.

Amesten dugun eta gure lanaren bidez bilatzen dugun eraikuntza soziala da, pertsona guztiei ongizate ekonomikoa eta bizimodu duina izateko bermea ematen diena.

Hauxe da, zerbitzu publiko den aldetik, ekimen politikoaren lehen eta azken helburu nagusia.

Hauxe beraz, "ongi gorenaren" ordezkari eta arduradun gisa neureganatu dudan

konpromiso pertsonala .

KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOEN ALDEKO POLITIKA SOZIAL BATEN BERMEA.

Voy a cerrar este primer capítulo dedicado a la Reactivación Económica y el Empleo con una mención expresa a la Política Social, con la que mi Gobierno va a estar comprometido desde el primer día.

Soy plenamente consciente de que nuestra misión es velar por el equilibrio y la justicia social, estar más cerca de quien más sufre, de quien más nos necesita.

Nuestro compromiso es garantizar unos servicios sociales de calidad para todas las personas. Primero las personas.

En este sentido, adelanto el compromiso programático del nuevo Gobierno, con unas medidas en seis ámbitos de actividad que, desde el más amplio acuerdo y consenso, permitan:

- Mejorar la garantía y la eficacia de las ayudas sociales.
- Priorizar las políticas de inserción social y laboral.
- Garantizar, desde la colaboración interinstitucional, la sostenibilidad de la financiación de los servicios sociales.
- Incentivar la coordinación entre los diferentes servicios de empleo.
- Favorecer y fomentar el acceso a vivienda protegida en régimen de alquiler social, y
- Ejercer un mayor control y seguimiento de las prestaciones sociales.

Testuinguru honetan, lehentasunen artean aipatu nahiko nuke premiazko beste helburu bat, oinarrizkoa dena, pertsonen segurtasuna hobetzea, alegia.

Terrorismorik gabeko eszenatokia aukera ona da, esfortzu publikoa hiritarrentzako neurriak aplikatzeko ekimenean jartzeko.

Hauxe izango da Jaurlaritzaren berriarentzako ildo nagusi bat.

Quiero centrarme en el objetivo de garantizar una Política Social a favor de unos servicios públicos de calidad que va a inspirar la acción de mi Gobierno.

Nuestra misión va a ser recuperar el prestigio para el sistema vasco de salud, dado que este es uno de los pilares fundamentales de la calidad de vida y el bienestar de la sociedad.

Fuimos la primera Comunidad en garantizar un sistema sanitario tanto público como universal.

Ahora nuestro compromiso se centra en tres ámbitos que ubican a las personas como eje central y que fomentan una cultura de la salud:

- La transformación del sistema, potenciando la atención primaria e integral, garantizando la actualización de los equipamientos, desarrollando políticas de eficiencia en la gestión.
- El impulso de la participación, protagonismo e implicación de los profesionales, y

- El desarrollo de la innovación y el conocimiento en beneficio del paciente.

Nos proponemos mejorar la eficiencia del sistema vasco de salud, con el objetivo precisamente de garantizar los principios con los que nos sentimos comprometidos: un sistema sanitario público y universal, que debe mejorar su rendimiento y calidad.

Honekin batera, gure helbururik nagusienetako bat izango da, bikaintasuna euskal Hezkuntza sistemaren motore gisa berreskuratzea.

Oinarri sendoa dugu, lehenagotik Itun integratzailea dugulako.

Une honetan, Itun hori indartu behar dugu, arreta hezkuntza komunitate osoan jarritz.

Ez dugu onartuko Hezkuntza banaketa elementu bihurtzerik. Espainian bada, baina ez Europan.

Madriletik banatzeko inposatzen saiatzen diren eredu horren aurrean, euskal hezkuntzaren autogobernu eredua indartzea planteatuko dugu. Alor honetan hezkuntza komunitate bera oinarrizko subjektua delarik.

Hezkuntza funtsezko sektorea da, dugun aktiborik nagusiena gure giza kapitala delako.

Gure etorkizuna prestakuntzan egingo dugun inbertsioaren neurrikoa izango da. Ondorioz, gure egitasmoan, Oinarrizko Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Unibertsitatea eta Ikerkuntza, oinarrizko beharizan dira gurea moduko gizarte modernoan.

Eleaniztasuna eta hezkuntza digitala bultzatzea, eta irakasleak prestatzea da Hezkuntza alorrean dugun konpromisoaren gako nagusiak.

Horiei ere lotzen zaie etengabe prestatzeko kultura hedatzeko konpromisoa. Eta baita ere, barneko eta kanpoko ebaluazioari irekita dagoen hezkuntza sistema sustatzea.

Kalitatezko zerbitzu publikoen alorrean baita ere, Kultura aipatu nahi dut, gizarte kohesiorako motorea delako.

Gure konpromisoa honako hau da: Kultura politika bultzatzea; elkartze, truketze eta elkarrizketaren emaitza gisa ulertzea.

Konpromiso honek lau ardatz jasotzen ditu:

- Hiritar guztiek ondasun kulturalak gozatzeko duten eskubidea.
- Gizarte eragileen parte hartzea.
- Ekoizpena sustatzea industria sortzileen esparruan, eta
- Hiritarren "hazkunde kulturala" sustatzea.

Helburu gisa jarri dugu gure gizartearen bizitasun kulturalari bide berria ematea, ondarea zaintzetik hasita, abangoardia kulturalari eman beharreko arretara.

